

Enpresa- deslokalizazioaren aurkako neurriei buruzko Foru-Legeari ELAren proposamenak

2020ko urria



www.ela.eus

ELA
EUSKAL SINDIKATUA

Aurkibidea

Sarrera.....	3
Deslokalizazioaren zergatiak.....	4
Nafarroako deslokalizazioak.....	5
ELAren proposamenak.....	5

1. SARRERA

Azken urteotan, enpresa anitzek erabaki dute beren Nafarroako lantokiak ixtea, ekoizpena bertze herrialde batzuetara eramateko. Gehienetan, enpresa bideragarriak dira, baina are diru gehiago irabazi nahian kanpora joan dira eskulan merkeagoaren bila (Faurecia, Gamesa, CAF...). Enpresa horien jokabideak ondorio oso larriak eragiten ditu Nafarroako industria-sarean, enplegua suntsitzen duelako, eta lan-baldintzak okertzen dituelako, balizko deslokalizazio baten mehatxupean.

Sodenaren datuen arabera, Nafarroan dauden multinazionalak Frantziatik, Alemaniatik eta Estatu Batuetatik etorri dira. Frantziako multinazionalen kopurua ia bere horretan mantendu da azken urteetan; aldiz, Alemaniako eta kapital amerikarreko enpresak hirukoiztu dira Nafarroako Foru Erkidegoan. Sektoreka begiraturaz gero, Alemaniako enpresak dira inbertsiogilerik handienak autogintzan eta metalgintzan; Frantziako enpresak, batez ere, elikadura sektorean (eta haien atzetik Nederlandakoak) eta elektronikaren sektorean; eta, azkenik, Estatu Batuak lehen inbertsiogilea da paperaren arloko enpresetan, eta bigarren inbertsiogilea Nafarroako autogintzaren eta metalgintzaren sektoreko enpresetan.

Horiek horrela, ELAk uste du ezinbertzekoa dela industria-politika berritzailea bultzatzea, eta bertzelako industria-eredu bateranzko trantsizioa erraztea, helburu jakin batzuei begira: gizartearen beharrianak, genero-berdintasuna eta ingurumen-jasangarritasuna. Orobat, ezinbertzekoa da I+G+bri loturiko sektore estrategiko berriak bilatzea, kalitateko eta balio erantsiko enplegua lortzeko. Horretarako, beharrezkoa da sektore estrategikoetan esku-hartze publikoa egitea eta banka publiko bat sortzea, enpresen deslokalizazioaren aurkako industria-politika sustatu ahal izateko.

Nafarroako industriaren puntu kritikoetako bat erabakiguneen urruntze progresiboa da, Nafarroako kapitalak enpresa anitzetan sozietate-kontrola galtzearen ondorioz. Orain arte inbertsioak erakartzeko jarraitu diren politikek areagotu egin dute arazo hori. Europar Batasunean sartzearen, geroko zabaltzearen eta irautearen ondorioz industriaren berregituraketa areagotu da; eta gainera, kapitalen mugimendu-askatasunaren logika neoliberalarekin eta hemen ekimen inbertitzaile ez izatearekin batera, egungo egoerara iritsi gara. Horrek menpekotasun handia sortu du zenbait enpresa-talderekiko, zeinek etengabeko xantaia egiten baitute, jakin badakitelako zer-nolako

boterea duten eta zer-nolako beldurra dagoen langileen artean balizko deslokalizazio baten aitzinean.

Oinarrian dagoen arazoa jabetza kapitalistako ekoizpen-baliabideen gaineko kontrolik eza da. Ondorioz, erabakiguneak erakartzearen eta enpresak errotzea ziurtatzearen aldeko apustua egin behar da, gure gizartearen beharrei erantzun diezaieten; eta aldi berean enpresa horietan lan-baldintza duinak ziurtatu behar dira. Halaber, lehenasunezkoa izan behar da ekoizpen-zirkuituak hurbilekoak izatea, eta trakzio-industria horien inguruan kalitatezko enplegua sortzea. Horrela, bada, ekoizpenak gure gizartearen kontsumo-beharrei erantzun behar die, eta ekoizpen/kontsumo zirkuituak alait hurbilen egon behar dira, baina aiantzi gabe gure gizartea industriari eta zerbitzuei hertsiki lotua dela.

Apustu horrek ez du berehalako fruiturik emanen, baina tankera horren apustu estrategiko batek gure egoera industrial, soziala, ekologikoa eta lanekoa aldatuko ditu epe ertainean. Gure oraingo krisia arlo sozial, ekonomiko eta ekologikora hedatzen da, eta premiazko aldaketak egin beharrez gaude.

Nafarroako Parlamentuak izapidetzera onartu berri du enpresen deslokalizazioaren aurkako lege-proposamena, EH-Bilduren eskariz. Hori dela eta, ELA sindikatuak dokumentu hau egin du, eta Parlamentuko talde guztiei helaraziko die, gure proposamenak aipaturiko legean jaso daitezen.

2. DESLOKALIZAZIOAREN ZERGATIAK

2008an, Eusko Legebiltzarraren ekimenez, "Ekoizpenaren deslokalizazioari buruzko azterlana" egin zen, eta ondorioztatu zen deslokalizaziorako probabilitate handieneko faktoreak hiru direla:

- **Kapitalaren jabetza:** jabetzaren egitura faktore erabakigarria da deslokalizazio prozesua azaltzeko orduan. Enpresaren kapitala nagusiki atzerritarren esku dagoen heinean, enpresaren deslokalizazioa errazagoa izanen da. Estatu espainiarrean, deslokalizazio-eragiketarak egin dituzten enpresen %63 ez-egoiliarren esku daude. Nafarroako enpresa anitzen erabakiguneak Nafarroatik kanpo egotea gure industriaren ahulgune handienetariko bat da.
- Tamaina: enpresa handiek nazioarteko proiektuei ekiteko finantza-gaitasun eta baliabide-gaitasun handiagoak dituzte, eta hortaz aiseago har dezakete beren ekoizpena kanpora eramateko erabakia; enpresa txikiek, aldiz, nazioartekotzeko gaitasun mugatuagoa dute.
- **Inguruneke alderdi eragozgarriak:** ingurunean kontrako faktoreak dituzten sektoreek joera handiagoa izanen dute beren aktiboak bertze leku batzuetara eramateko. Alde horretatik kontuan hartzeko faktoreetariko batzuk hauek dira: ingurumen-arloko presioa, lurzoru-eskasia edo hirigintzaren presioa. Lurzorua edo energia bezalako baliabideak modu intentsiboan erabiltzen dituzten industria-jarduerek problematika espezifikoki bati egin behar diote aurre. Beraz, beharrezkoa da horrelako enpresak gainbegiratzea, eta aukerako kokapenak alde aurretik bilatzea, zuzendaritzak lekualdatzeko erabakia hartzeko zorian egotekotan, bertzelako aukerak proposatu eta aztertu ahal izateko.

3. NAFARROAKO DESLOKALIZAZIOAK

Estatu espainiarrak bi deslokalizazio-olde izan ditu. Lehendabizikoa, 1990eko hamarkadaren hasieran, Merkatu Bakarrean sartu zenean; eta bigarrena, mende honen hasieran, EB handitzeko prozesuarekin batera. Hastapenetan, lan-eskuko sektorerik intentsiboenak izan ziren kaltetuenak, hala nola ehungintza, larrugintza eta oinetakoak edo jostailuak; eta, ondoren, deslokalizazioak intentsitate teknologiko handiko eta ertaineko sektoreetara hedatu ziren: produktu informatikoak, elektronikoak, optikoak eta elektrikoak, industria kimikoa edo garraio-materiala.

Aipaturiko deslokalizazio-oldeek Nafarroan ere izan dute eragina. Azken urteotan honako deslokalizazio hauek, bertzeak bertze, gertatu dira:

- **Cousin Freres-Faurecia:** 2015. urtean Faurecia multinazionalak bere Burlatako lantokia itxi zuen, eta ekoizpena Frantziara eta Poloniara eraman zuen. Hori zela-eta, 190 langile kaleratu zituen.
- **Miasa:** Autogintzako enpresa horrek urteak daramatza Iruñako lantokia desmuntatzen. 2018an 20 langiletik goiti kaleratu zituen, lan-kargarik ezaren argudioaren pean; baina egiatan ekoizpena Zuerara (Zaragoza) eramaten ari zen. Geroago, Nafarroako Auzitegi Nagusiak deusezak deklaratu zituen kaleratzeak, EREa baliozkotzeko arrazoi aski ez zegoelakoan.
- **Loxin:** aeronautikaren arloan balio erantsi handiko enpresa horrek 29 langile kaleratu zituen 2018an, ekoizpena Txinara eramateko. 2008. urtetik goiti enpresak ia 5 milioi euro jaso izan zituen Nafarroako Gobernutik.
- **Cabelte-Incasa:** 2018. urtearen amaieran enpresa horrek bere Eguesko lantokia itxi eta 70 langile kaleratu zituen, ekoizpena Portugalera lekualdatzeko asmoz.
- **Apoyos Metálicos:** Olatzagutiko enpresa horrek bere 73 langileak kaleratu zituen 2019an, eta jarduera Asturiasera eraman.
- **Siemens Gamesa Agoitz:** 2020ko udan enpresak 200 langiletik goiti kaleratu ditu Agoizko lantokitik, eta kutxa publikoetatik 13 milioi euro jaso ondoren ekoizpena Portugalera eraman du. Erabaki horren ondorioz Nafarroako aurre-pirinioetako eskualdeetako jendegabetzearen eta langabeziaren arazoak larriagotu dira.
- **Trenasa:** CAF multinazionalaren menpeko enpresa horrek, milioika euroko dirulaguntzak jaso ondoren, Castejongo lantokia itxiko duela iragarri du. Lantoki horretan 100 langiletik goiti aritzen dira.

4. ELAren PROPOSAMENAK

4.1. Lan-erreformak indargabetzea, lantoki errentagarrien deslokalizazioa eragozte, eta jasotako dirulaguntzak itzuli behar izatea:

- Lan-erreformak baino lehenagoko egoerara itzultzea (PSOEren 2010 eta 2011ko lan-erreformak eta PPren 2012ko lan-erreforma).
 - Langileak kaleratu ahal izateko arrazoi ekonomikoa galerak izatea zen ekonomia-ekitaldi batean baino gehiagotan; eta ekoizpen-arrazoia are mugatuago zegoen. Ez zegoen deslokalizaziorik egiterik horretarako nahita sorrarazitako ekonomia- eta ekoizpen-arrazoietan oinarrituz.

- Negoziazio-epe mugatu gabeak zeuden (gutxienez 30 egun), eta EREak eta ERTEak betearazteko baimena.
- Lantoki errentagarriak ixtea eta deslokalizatzea debekatzea.
- 1/2017 Legegintzaren Foru Dekretuan, zeinaz Lurralde Antolamenduaren eta Hirigintzaren Legea onetsi baita, desjabetzeko aukera sartzea, lurzoru urbanizaezinaren balioaren truke (lursailak, bulegoak, aktibo ibilgetua), etekinak ateratzen dituzten ekoizpen-zentroak ixtea erabakitzen duten enpresetan, jabetza pribatuari datzekion funtzio soziala urratzeagatik.
- Lantokia deslokalizatzeak betebeharrak bat ekarriko dio enpresari: jasotako dirulaguntzak itzuli behar izatea.

4.2. Negoziazio kolektiboaren eskubidea bermatzea:

- Atal sindikalek eta enpresa-batzordeek berregituratze-planak eteteko ahalmena izan behar dute, harik eta enpresaren egoera (ekonomia, finantzak eta ekoizpena) behar bezala ezagutzea izan arte.
- Nafarroako lantokietan negoziatzio kolektiboa baimentzea, ERTE eta ERE espedienteen pean egon arren; eta gure esparruetako gehiengoek neurriei buruz erabaki ahal izatea. Helburua zera da: eraginpeko lantokiak bat baino gehiago badira, Estatuko sindikatuekin negoziaturiko itxierak ezartzea eragozte.

4.3. Aurrekontu, zerga eta ingurumen arloetako proposamenak:

- Banka publikoa sortzea, enpresen kapitalean egiten den inbertsio publikoa bideratzeko, eta baita likideziaz eta finantzaren zein kapitalaren ahalmenaz hornitzeko ere.
- Gure presio fiskala Europako Batasunaren batez bertzeakoaren pare jartzea, urtean 1.600 milioi euroko diru-bilketa egin ahal izateko.
- Nafarroako fiskalitate bidegabea azkentzea. Izan ere, diru-bilketaren 10 €-tik 7 € lan-errentetatik datoz; eta Nafarroa da Sozietate Zergaren bidez diru gutxien biltzen duen Estatuko lurraldea.
- Enpresa- eta kapital-errenten iruzur fiskal ikaragarriari buru egitea. Gure proposamena honetan datza: Foru Ogasunak zerrenda bat argitaratzea, Nafarroan egoitza edo negoziouinitatea duten eta filialak, presentzia edo interesak paradisu fiskaletan dituzten sozietate-taldeak denen jakitera emateko. Helburua estrategia bat diseinatzea izan behar da, enpresa edo pertsona fisiko horien tributazioa Nafarroako Ogasunera berriz erakartzeko. Horrela, estatistikoki iruzur gehien egiten duten subjektu pasiboiei begira jarri behar da zerga-ikuskaritza, alegia, enpresa handiei eta ondare handiei begira.
- Nafarroako urteko aurrekontuak ekonomia-politikaren benetako tresna gisa erabiltzea, errenta birbanatzeko eta ekoizpen-eredua eraldatzeko eta hobetzeko.
- Barne-eskaria sustatzea, ekonomiaren susperraldia finkatzeko. Horretarako, eta laneko politiken bidez sustatuko da gutxieneko soldatak igotzea, gehieneko lanaldiak laburtzea, kontratuen behin-behinekotasuna kentzea, eta abar.
- Ekoizpen- eta industria-eredua eraldatzea, jasangarriagoa izan dadin, bai klima-aldaketaren aurkako borrokari begira, bai genero-berdintasuna lortzeari begira.

- Nafarroako ekonomiaren trantsizio eko-soziala errazten duten sektore estrategikoetan ekoizpen-inbertsioak sustatzea. Produktibitate handieneko eta balio erantsirik handieneko jarduerak lehenetsi behar dira, gastu pribatu gehiago I+G+bra bideratuz.

4.4. Industria-politikarako proposamenak:

- Lan eta Gizarte Segurantzaren Ikuskaritzak rol aktiboagoa jokatzeko, eta baita Nafarroako Gobernuaren Ekonomia eta Enpresaren Garapenaren Departamentuak ere, deslokalizatzeko zorian dauden ekoizpen-jardueren alde.
- Nafarroako Gobernuak jardute-protokolo bat argitaratu eta abiaraztea, krisian, belaunaldi-erreleboko prozesuan edo deslokalizatzeko zorian dauden enpresetarako. Hurrengo aukera hauek helburu izanik:
 - Kapital publikoan sartzea eta enpresetan parte hartzea, abalak, maileguak edo diru-laguntzak ematez gain, lehen mailako hipoteka-bermeekin eta bertan irauteko betebeharrarekin.
 - Merkataritzako edo konkurtsoko likidazio-fasean dauden ekoizpen-unitateak erostea, industria-jarduera edo zerbitzuak berrabiarazteko, aktiboen jabetza soziala bermatuz, eta enpresa publikoak edo langileen partaidetzapeko enpresak bultzatuz.
 - Enpresaren ondorengoari eustea; lan-sozietate, kooperatiba edo ekonomia sozial eta solidarioko entitate bihurtuz.
- Enpresen likidazio-prozesu guztietan eta hartzekodunen konkurtsoetan administrazio publiko gisa aurkeztea, eskura dauden tresnen bidez (Kapital Sozietateen Legearen 373 eta 382 artikulua, eta Konkurtso Legearen testu bateginaren 58. art.).
- Industria eta nazioartekotze arloetako departamentuetan atal espezializatuak sortzea, balizko deslokalizazioak alde aurretik antzemateko; nazioartekora ateratako enpresei jarraipena eginez (atzerriko kapitala, multinazionalak eta transakzionalak barne), eta baita haien plan estrategikoei, errotze-konpromisoaren betetze-mailari eta abarrei jarraipena eginez ere.
- Inbertsioak erakartzeko politika birbideratzea, enplegu-arloko betebeharrak, lan-baldintzak eta lurraldearekiko betebeharrak sartuz, erakundeek kanpo-kapitalaren inbertsioa sustatzeari dagokionez.
- Kapital publikoaren inbertsio iraunkorra ebaluatzea, kontrol estrategiko eta operatiborako gaitasuna izanik, dela gutxiengoan (akzioen %49raino), dela gehiengoan (akzioen %50etik gora), eta kudeaketan parte hartzea izanik lurraldearentzat "estrategikotzat" jotzen diren enpresa bideragarrietan, baldin eta enpresa horiek ixteko arriskuan badaude edo atzerriko taldeen desinbertsio-eragiketen edo bat-bateko kapital-ateratzeen eraginpean badaude.
- Ekoizpen-unitateak eskualdatzeko mugak eta bitartekoak ebaluatzea, bereziki multinazionalen deslokalizazioen kasuan.
- Industrietan eta enpresa publikoen korporazioetan parte hartzeko erakunde nafarra modu aktiboagoan bultzatzea eta birbideratzea dimentsio handiago baterantz, industria-politikaren eta ekoizpen-garapenaren helburuekin, errotzea indartuz eta deslokalizazioak saihestuz.

- Politika industrialerako tresnak egokitzea, arriskuan dagoen industriari loturiko ekoizpen-eta zerbitzu-sareak babesteko, deslokalizazio-prozesuak barne, ekonomiaren plangintza nazionalako prozesu baterantz bideratzeko.
- Aipaturiko prozesuak bultzatzeko esparruetan derrigorrez behar den enplegu publikoa sortzea.
- Prestakuntza espezifiko iraunkorra ematea Nafarroako Gobernuko departamenturen baten ordezkartzan esku hartzen dutenei, alegia, aholkularitzan, laguntzan edo bitartekaritzan esku hartzen dutenei honelako prozesuetan: enpresen krisi-prozesuetan, deslokalizazioetan, hartzekodunen konkurtsoetan edo krisian dauden enpresak eraldatzeko prozesuetan (lan-sozietate, kooperatiba eta ekonomia sozial eta solidarioko sozietate bihurtzeko prozesuetan).
- Unibertsitate publikoarekin batera ikerketa-zentro bat sustatzea, industria-politikak ekosozialki bideratzeko azterlanak eta analisiak prestatzeko eta emateko:
 - Izaera globaleko joera ekonomikoak eta industrialak aztertzea, eta baita Nafarroako ekonomian dituzten ondorioak ere.
 - Nafarroako egitura ekonomikoaren eta industriaren ahulgune eta indarguneak aztertzea, eta hori bera sailkatzea jarduera-atalen eta ekoizpen-kateamenduen arabera.
 - Nafarroan egindako industriaren eta I+Gren politikak kritikoki aztertzea, bai eta bertze herrialde batzuetakoak ere, jardunbide egokiak eta erreferentziak bilatuz (industria-politika aktiboak eta bertikalak, gobernu ekintzaileen sustapena, etab.).
 - Industria eta haren nazioarteko proiektzioa hobetzeko eta birbideratzeko proposamenak egitea.



www.ela.eus

ELA
EUSKAL SINDIKATUA